

M. - 14661

A. T. V.

R. - 7635

5879





ZERUKO IZARRA.



Número 14.

Zeruko Izarra

: : BERAK DAUZKA : :

Goizeko jarduera : : Meza

Santua : : Bezperak : : Kal-

barioko bidea : : Konfesa-

tzeko eta Komulgatzeko otoi-

tzak eta beste oititz batzuk.

Lopez-Mendizabal' dar l'ek

: : : : IPIÑIAK : : : :

.....
Vitorl'ko Apaiz-nagu-
siaren baimena badu,
.....

: : : : TOI OSA'n : : : :

: E. Lopez'en etxian :

: 1924'garren urtean :

Egillearena da.

Obispado de Vitoria.

En vista de la censura favorable que el Devocionario titulado "Jesus'en Biztazaren maitale zintzua" (1) ha merecido al M. I. Sr. D. Mateo Múgica, Canónigo Lectoral de esta Santa Iglesia Catedral, comisionado por Nos para el exámen del citado Devocionario que V. ha ordenado y arreglado, le concedemos nuestra licencia para que lo pueda imprimir y publicar.

Dios guarde a V. muchos años.

Vitoria 13 de Febrero de 1912.

† EL OBISPO DE VITORIA.

Sr. D. Isaac López Mendizabal.

TOLOSA.

(1) Liburu ontatik dago aterea

ZERUKO IZARRA.





KRISTAU ONAREN GOIZA

Irukoltz txit Denerari etoitza

Bedeinkatua izan
bedi Irukoitz guztiz
doatsua, Aita, Semea
ta Espiritu Santua,
iru persona bana-
koak eta egizko
Jaungoiko bat: nere

Zeruko Lorea—2.

ibilerak zuzendu itzazu, ta gaitz guztietatik zaindu, Ama Birjiñaren bitartekotasunaren bidez zerua iritxi dezadan. Ala izan bedi.

Goizeko otoitza

Betiko Aitari Jesuskristo'k belaunikaturik otoitz egin bazion, nola jari bearko da pekataria Jau-

naren aurrean, berari biotzez agur e-
giteko?

Aitaren, eta Se-
mearen eta Espiritu
Santuaren izenean.
Alaxen.

Maitetasunezko egintza

Nere Jaungoikoa!
zure aurrean nik,
gauz guzieren jaun ta
jabetzat ezagutzen
zaitut; eta bear dan

begirapen guziz ez-
pada, al dedanaz
beintzat, maitatzen
zaitut.

Etxetik ateratzean

Jauna, nere ibi-
lerak zuzendu itza-
zu, eta ez nazazula
utzi zugandik peka-
tuz aldentzen.

Elizan sartzean

Jauna, zure etxe
saniuan sartu naiz,

eta zure izena goratuko det.

Ur bedeinkatua artzean

Ur bedeinkatu aū nere pekatuen barkapenerako izan deñia.

Jesus Sakramentatuaren

:-: aurrean arkitzean :-:

Nere Jesus ona, Sakramentu ontan zñez arkitzen zerala sinisten det: biotz guziz maite zaitut.

Gaxo batentzat Elizakoak

:-: beramaten ikustean :-:

Zu zera Kristo,
Jainkoaren semea:
zure mendeko gaxo
arkitzen dana begi-
ra zazu, ta gure az-
ken garayan zure
gorputz santua ar-
tzea iritxi zaiguzu.

*Aita gurea, Agur Maria
ta Gloria.*

Lanen bati asiera ematean.

Jauna, zure ain-
tzarako, ta nere pe-

katuen barkapenerako lan au eskeintzen dizut.

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

Erlejuak ordua jotzean

Nere Jauna, nitzaz eruki zaitte, eta zure beldur santuan bizi eta il nadiña egizu.

Pekatuan erortzeko zoriyan arkitzean

Nere Jauna, neri laguntzera atoz:

pekatuan erori ez
nadin, gorde naza-
zu. Ala izan dediġa.

Pekatuan erortzen danean

Nere Jauna, ni-
tzaz eruki zaitte: zu-
ri kalte egiña, biotz
guziz damu det, eta
zure laguntzaz peka-
tuan ez geyago eror-
tzea; ta gaiztakeri
guztietatik aldentzea
eskeintzen dizut.

Ondoezik arkitzen danean

Nere Jauna, gaitz
ontan lagundu zai-
dazu, eta zuk nai de-
zuna egin bedi.

Norbaitek gaitz egin digunean

Nere Jauna, nik
barkatzen diot eta
zure maitasunagatik
biotz guziz maite
det: artzaz eta nitzaz
eruki zaite.

Mayaren bedeinkapena

Jauna, artzera goa-

zen janaria, bedein-
ka zazu, ta bear
adiña artu dezagu-
la egizu, zure gogo
santua egiteko. Jesu-
kristo gure jauna-
ren izenean.

Bazkal-ondean Jaunari eman

:-: bear zaizkan eskerrak :-:

Jauna, artu ditu-
gun janariaz eske-
rak ematen dizki-
tzugu, geyegirik egin
ba-degu barka zai-

guzu, ta gure ani-
men betiko janaria
izan zaite. Alaxen.

Ezkillak Otoitza jotzean

Jaunaren Ainge-
ruak Maria'ri beñi
ona eman zion: Eta
Espiritu Santuaren
egitez aurðun arkitu
zan.

Agur Maria.

Ona emen Jauna-
ren mirabea:
Egin bedi nigan

zuk diozun bezela.

Agur Maria.

Jaungoikoaren Se-
mea gizon egin zan:

Eta gure artean
bizi izan zan.

Agur Maria.

OTOITZA

Jauna, laguntza
iguzu, aingeruak a-
dierazirik, Jesukris-
to'ren gizontzea e-
zagutu degunok, zu-
re neke ta gurutzea-

ren bidez betiko zerrua iritxi dezagula. Jesukristo gure jaunaren izenean. Alaxen.

Ama Birjiñaren Agurra

Aguń, Maria, Jainko Aitaren alaba.

Aguń, Maria, Jainko Semearen Ama.

Aguń, Maria, Espiritu Santu Jainkoaren emaztea.

Aguń, Maria, Irukoitz txit

santuaren Eliz ta
gordetokia. Agur,
Maria, sortzetik gar-
bia. Alaxen.

Oeratzean

Jauna, nere ani-
ma zure eskuetan i-
pintzen det; pekatu-
tik eta bat-batetan
iltzetik zaindu naza-
zu.

Maria txit santuari Otoitza



Maria
biotz bigu-
ña, peka-
tarien gor-
delekua; zure lagun-
tza eskatzen dizugu:
gaitz guztietatik zu-
re magalean babes-
tu gaitzazu. Ama bi-
guña, Jainkoarekin
pakeak egin arte gu-
re alde beti eskatu
ezazu.

Jesus gure Erosleari Otoitza



Pekatarien
ordez il zi-
ñan Jaun-
goiko biziaren seme
Jesus erukitsua! ta
ura eriyotza.....
gurutze batean, eta
bi lapuren erdiyan.
Biotz guziak, onak
ba-dira maitatu bea-
raituzte!

Jesus'en Jainkozko Biotzari Otoitza



Jesus'en
biotz bigu-
ña! Beti-
ko Aitak

ageritu zigun gure o-
toitzak beti entzungo
zituala, esanaz: *Ne-
re maite Jesus'en
biotzari eska zai-
zu; biotz onegatik
entzungo dizut, e-
ta eskatzen dezun*

guzia eskuratuko
dezu. Nik zure bitar-
tekotasunaz nai nu-
keana iristeko, ne-
re eskari guziak Be-
tiko Aitari egiten
dizkat. Jesus'en bio-
tza! Nere eskariak es-
kuratu zaizkidatzu,
Jainkoaren aintza-
rako eta nere ani-
maren onerako ba-
dira. Alaxen.

Erroke Santuari Otoitza



Jainkoak
ainbeste la-
gun'du di-
zun Santua! Zure
ontasun aundi eta
irazekiaz izurñiaren
aurrez gure bitarte-
koa izan zaite, gaitz
ikaragarri ori, gu-
gandik aldendu de-
din, eta bera gabe
gu ta gure etxeko-

ak arkitu gaitzen.
Zure oñetan belauni-
katurik eskatzen di-
zugu... Gure besoak
zuri luzatzen dizki-
tzugu..... gutzaz erú-
ki zaitte... lagun zai-
guzu!



Aingeru Zaintzalle Santuari Otoitza



Jauna,
jakintasun
aundiaz

gure laguntzarako
aingeruak ipiñi zin-
duan. Neri ipiñiak
beti lagundu dagi-
dan laguntza indazu.
Jesukristo'ren ira-
bazpenen izenez. Ala
izan dediña.

Izeneko Santuari Otoitza

Zeruan Jaungoiko-
koa'rekin arkitzen
zeran N. santu mai-
tekoña; zure izena
zikindu ez dezadan,
Jaunaren aurrean ni-
tzaz oroitu zaitte, eta
zu iritxi ziñan ka-
yera iristea irabazi-
ta zuk iritxi dezun
guzizko zorion oñe-
tza izan dezadan.
Alaxen.

Purgatorioko animen aldez Otoitza

Jesus biotz bigu-
ña! ildakoen animai
begi onez begira za-
yezu. Zure odol ede-
ra ixuriaz eta guru-
tzeko miñak artuaz
oyegatik il ziñalako.
Alaxen.



Jose Santuari Otoitza

Zorioneko
Jose, birji-
ñen erregina-
ren senar ber-
dingabea! ne-
re aita, ne-
re lagun ta nere ibi-
leren zuzentzaile izan
zaitte; zureen antzera
egizu, nere egikera
guziak, Jaungoikoa-



ren gorapenerako,
nere pekatuen bar-
kapenerako ta Je-
sus eta Mariaren bi-
otz garbien kaltez
egiu diran gauzak
ordaintzeko izan di-
tezela; nere bizitza-
ren egun guzietan,
eta batez ere azkene-
ko garayan lagun
zaidazu. Alaxen.

Karmen'go Ama Birjiñarl Olotza



Nere Jaun-
goikoa! zure
aitorle zorio-
neko Simeon'ek es-
kату zizulako, eta
zure seme Jesukris-
to'ren Amaren bidez
Karmelo mendiko
Lagunkidari esker
aundi eder bat eman
ziozuna: Santu oren
ta Birjiñaren bitar-

tez, Zu maitatzen
zaituztenak iristen
duten betiko zoriona
iritxi dezagula egin
ezazu. Au guzia gu-
re Jaun Jesukristo-
ren irabaziyen bidez
zurekin beti bizitze-
ko eskatzen dizugu.
Alaxen.

*Aita gurea, Agur Maria
ta Gloria.*

Sinispén, Itxodopen eta

Maitetasunezko egintzak

Nere Jaungoikoa!
Egi bera zeralako,
zugaran sinisten det.
Guziz ona zeralako,
zugaran itxodoten det.

Neurí gabe ona ta
maitagaría zeralako,
gauza guztiak baño
geiago maite zaitut.

Zure maitetasuna-
gatik, nere urko la-
guna, nere burua

bezela maite det.

Alaxen.

Padua'ko Antonio Santuari Otoitza



Gure aita
Antonio San-
tuari, bere
maitatzañeak galdu
dituzten gauzak ar-
kitzeko eskerá eman
ziñiozun Jaun ta
Jaungoikoa, santu
zoriontsu oni ainbes-
te lagundu ziñiozu-

lako ezkerak ematen
dizkitzut, ta bere bi-
tarte pekatuan ez
erortzeko, zure era-
kusketak jaraitze-
ko, zure laguntza ez
galtzeko, ta zorigai-
tzean galtzen ba-det,
lenbaitlen irabazte-
ko zeruko argi doa-
tsua eskatzen dizut.



Meza santua bear bezela
entzuteko era.

Apaiza aldarera dijoanean.

Adierazten du baratzako otoitza.



DEBERRY

L. M.

Aitaren ✠ Semea-
ren ✠ ta Espiritu San-

tuaren izenean † Alaxen.

□ Nere Jesukristo Jaun eta Jaungoikoa: Zuk otoi egin zenduen Jetsemani'ko baratzan betiko Aitari eskatuaz Pasiyoko neke oñazeak al bait zu samindu gabe igaro zitezela, baña Aren gogora jartzan ziñala esanez: Jauna, zure

maitatzañe apal-apa-
la, neke guztiak go-
go onez eramateko
laguntza eskatzera
natorkizu; ta ez nu-
ke nai inolaz nere
gogoa egitea, baizi-
kan zurea bakarrik.



Aitorpenean.

Adierazten du Kristo bere arpegiaren
gañean odola ixuriaz erori zala.

Meza entzuten dagoanak esango du NI PEKA-
TARIA,..



Nere Jaungoikoa,

zure lege santuak ausi ditudala ikusiaz nastua ta lotsatua arkitzen naiz. Jauna, bear ba-da, nere aragiak gogo onez artu nai ez a-ren, pekatuen barkapenerako neke ta lanak biraldu zaizkidatzu.



Introitoan

Adierazten du Kristo Anas'en etxera eram-
man eta masaġeko bat eman ziotela.



Jesus maitea, ne-

re buruaren gauz o-
kerak bear bezela e-
ramateko, eta urko
lagunaren irañak
barkatzeko, zuk i-
zan zendueneraman-
kizunaren antzeko
bat, eskatzen dizut.



Kirieleison'ean.

Adierazten du Kristo eramán zutela
Kaifas'en etxera ta Pedro'k an ukatzen
duala.



BEDEBY

LM

Iguza Jauna, mun-

du ontan bizitzeko
laguntza, beti zu mai-
tatuaz gero betiko
zoriona irabazi de-
zagun.



Gloria in excelsis'ean.

Adierazten digu Jesus'en jayotzan kanta-
tzen zutela Aingeru ta Goiaingeruak.



Kantatu dezatela.
nere Jaungoikoa.

zure zoriona zeruan
aingeruak; ta mun-
du ontako gizon gu-
ziak goratu dezatela
zure izen deuna.



Epistolan.

Adierazten du Kristo Pilatos'engana
eraman zutela.



Nere Aita ta Jaun-
goikoa, zure ikas-

leen erakusketaz nere
re adimena zořoztu
ta nere biotz iġa be-
rotu nai nuke.



Ebanjelioan

Adierazten du Kristo'z Erodes'ek par egin ondoren Pilatos'enera eramán zutela.



**Iguzu Jauna, men-
diak ibiltzen dituan**


sinismena ta onen
alde egon eta atera-
tzeko bear dan bio-
tza: ta orain iñoiz
baño geiago Elz Ai-
ma Deuna ta zure e-
tsayen aúrean.



Kredoan.

Adierazten du Ebanjeliotik atera bear degun ikasbidea.

Meza entzuten daudenak esango dute: NIK SINISTEN DET...



Nik sinisten det

Jaungoiko Aita,
Jaungoiko Seme eta
Jaungoiko Espiritu
Santuagan iru per-
sona, bañan egizko
Jaungoiko bat, gau-
za on guzien ema-
lea.



Eskeintzan.

Adierazten du Jesukristo iltzera eskeñi zala.



**Aita zerutar biotz
biguña, ar zazu apai-**

zak eskeintzen diz-
kitzun osti garbi ta
osasunezko kalizare-
kin batean zuk zu-
retzat egin zenduan
nere biotza; bera
nik gogoz ematen
dizut zurea dalako.



Eskuak garbitzean

Adierazten du Pilatos'ek eskuak garbitu
zituala.



Garbitu nazazu
nere Salbatzailea,

garbitu nazazu geia-
go oker guztietatik,
eta zuzendu itzazu
nere ibilerak damu-
tasunaren bide gar-
bitik.



Orate fratres etiam pro his.

Adierazten du Pilatos'ek eñiyari 'Kristo erakutsirik esan zuela: «ECCE HOMO» ona emen gizona.




Eskatu ezazu nere aldez, gure Eros-

learen ama ona; es-
katu ezazute nere al-
dez, zeruan arkitzen
zeraten zoriondu-
nak, artarako gara-
ya iristen danean
betiko zoriona iraba-
zi dezadan.



*Bizi diranen aldez apaizak
eskatzen duanean.*

Adierazten du Jesus iltzea erabaki zutela.



L.M.

GERMAN

**Oroi zaitte, Jaun-
goikoa, nik dauzka-**

dan bear guziak,
nik baño obeto eza-
gutzen dituzulako e-
ta zure biotz on ta
zure indaraz zuzen-
du zaizkidatzu. Oroi
zaitte, gañera, nere
antzera, zure eruki-
tasunaren zai dau-
den beste askoz.



Ostia jasotzean.

Adierazten du Kristo gurutzean goratua
izan zala.



**Orain egiaz eta
benetan nere aurean**

zauden nere Jaungoi-
koa! Maitatzen zaitut
osti santu oretan, e-
ta nai nuke mundu
guziak alaxen mai-
tatzea.



Kaliza jasotzean.

Adierazten du Kristo'ren zaurietatik
'ixuri zan odola.



Betiko bizitza e-
maten duen odolean

orain egiaz eta bene-
tan nere aurean zau-
den nere Jaungoiko-
a! Maitatzen zaitut
kaliz santu ortan e-
ta nai nuke guziak
zu onelaxen maita-
tzea.



*Apaizak ildakoen aldez
eskatzen duanean.*

Adierazten du Kristo'k gu guzion aldez
eskatzen duela.



**Begira zayezu, Jau-
na, begi onez, zure**

maitatzaĪe izan ziran
eta mundu ontako
bizi laburá galdu zu-
tenen animai, ta bai-
ta emen egin zituz-
ten gaitz ta pekatu-
agatik gaur oñazez
beterik garbitzen ar-
kitzen diranai.



Aita gurea

Adierazten ditu Kristo'k gurutzean esan
zitian zazpi itzak.

Meza entzuten daudenak esango dute: AITA
GUREA...



Jaungoiko eruki-

tsua, zeruetan zau-
den gure Aita, la-
gundu zadazu zure
izena beti gogoratu
ta zure gogoz bete-
tzeko.



Ostia ebakitzean.

Adierazten du Kristo gurutzean il zala.



Linbora jetxiaz,
urte askotan zure

zai zeuden Guraso
Santuak poztu ziñi-
tuan Jesukristo Jau-
na: poztu ezazu ne-
re gogoa zeruan aye-
kin batean izateko.
Alaxen.



Agnus Dei esatean.

Adierazten du Kristo gurutziltzatu zutenetik asko beren pekatuz damutu zirala.



Nik eskatzen diot
Jaungoikoari nere

pekatuen barkapena
ta eskeintzen diot
aurerontzean okerrik
ez geigo egitea.



Jaunartzean.

Adierazten ditu Kristo lurperatu zutela.



**Badakit, Jauna,
zein utsa naizen ne-**

re bulañean zu ar-
tzeko: bañan, naizen
bezela zurea naiz,
Jauna; ta zuri es-
keintzen naitzazu.

Nere Jesus, atoz
nigana, Aita bat be-
zela nai zaitut mai-
tatu-ta.



*Apaizak bedeinkapena
ematean.*

Adierazten du Espiritu Santuaren etorrera



**Aita Jaungoikoa-
ren bedeinkapena,**

eta onen bidez Seme
Jaungoikoaren naitasuna eta Espiritu Santuaren laguntzak gugana jexi ditezela. Alaxen.



Azkenengo Ebanjelioan.

Adierazten ditu Kristo'ren Jainkotasu-
nezko ta gizatasunezko ezkutapenak.



**Jesus ona! Zure
Jainkotasunezko ez-**

kutapenen izenean
eskatzen dizute ez na-
zazula utzi, betiko zo-
riona iritxi dezadan.
Alaxen.



Mezaren eskeintza.

Artu zazu, Irukoitz
guztiz Deuna, Je-
sukristo nere Jau-
naren gorputz eta o-
dolaren eskeintz au.
Bere eriotzaren oroi-
penean eskeintzen
dizut nere pekatu gu-
zien barkapenerako
eta garbitokian dau-
denak lenbaitlen ze-
ruratu ditezen. Ala-
xen.

*Meza santuaren ondorengo
otoitza.*

XIII'garren Leon Aita Santuaren agin-
duz 300 barkapen dituzte.

*Otoizten dira iru Agur Mari ta Salbe
bat.*

Eskubide guziak
dauzkatzun Jaungoi-
ko guziz altsua, eska-
tzen dizun eñi oni
arpegi onez begira
zayozu eta Ama Bir-
jin txit garbi Jesus'-
en Ama, bere senar
doatsu Jose Deuna,
Pedro ta Paulo apos-

tolo doatsuen eta
Deun guztien bitarte-
kotasunez entzun i-
tzatzu eruki aundiz
zure oñetan pekatari
guztien biurpenera-
ko ta gure Eleiz Ama
Deunaren zorionera-
ko ipintzen ditugun
gure eskariak. Kris-
to gure Jaunaren bi-
dez. Ala izan dedila.

Migel goiaingerua,
zaindu gaitzatzu ta

etsaiaren eraso-aldi-
en aurrean gure la-
guntzale izan zaitte;
Jainkoak mendera-
tu dezala, au da gu-
re eskaera laburra;
eta zuk, zerutar gu-
darien burua, inper-
nuetara sar-itzatzu
gure animen galme-
naren bila beti da-
biltzan Satanas eta
bere lagun gaiztoak.

R. Jesus'en Biotz guztiz ona.

V. Gutzaz errukia izan zazu.



GURUTZE-BIDE
edo Kalbarioko egipen santua.

*Gurutze santuaren señaileagatik.....
Nere Jesukristo Jauna.....*

ESKEINTZA.

**Gurutze bide ontan
zabiltzatenak! begira**

ezazute bide au Jaun-
goikoak animari
bialtzen dituen gu-
rutzez betea dagoela,
bañan etzaitetzela
ikaratu; jaraitu za-
zute bide ontatik Je-
sus'en oñazeak oroi-
tuaz, eta iritxiko de-
zute betiko zoriona.
Ala izan dediĭa.





LENBIZIKO GELDIALDIA.

Jesus iltzea erabaki dute.

R. Kristo, goratu ta maitatzen zaitugu.

V. Zure gurutze santuaren bidez mundua berterosi zendulako,

Eskatzen dizut, nere Jauna, zure ontasunaren izenean, beraren indarrez zutik burni ta katez beterikerabagilearen aurrean, onen epai gogoraren zai egon zi-

ñalako. Iguzu la-
guntza zure begien
auréan bildur gabe
egun batean agertu-
rik zeruko atsegiña
iristea. Alaxen.

*Geldialdi ontan gertatutakoaz
ondo gogoratu zaite.*

Gero esango dezu:—
Jauna, Zuri kalte egiña
damu det; erruki zaite ni
ta pekatari guztitzaz. Be-
deinkatuak eta goratuak
izan bitez Jesukristo gure
Jaunaren neke ta eriotza
ta gure Ama Andre Maria
Zeruko Lorea—7.

txit Deunaren oñazeak.
Alaxen.—Aita gurea, A-
gur Maria ta Gloria.



BIGARREN GELDIALDIA.

*Jesus'ek sorbalda gañean
gurutzeta darama.*

Kristo, goratzen...

Jesukristo nere
Jauna, juduen gaiz-
ki esanak eta Pilatos'
ek emandako guru-
tzea zure sorbaldean
artzeko eramankizu-
na izan zenuena:

nere etsayen gaizki-
esan eta egiñak on-
do eramateko, ta o-
yek gaitzez ez orda-
intzeko indarra eman
zaidazu. Alaxen.

*Jauna, pekatu egin det.—Aita
gurea ta gañerakoak, lenbiziko gel-
dialdian bezela.*



IRUGARREN GELDIALDIA
*Jesus lenbiziko aldiz luñera
erortzen da.*

Kristo, goratzen...

Jesukristo nere
Jauna, gurutzearen
egurtzarak zure sor-

balda minberatuen
gañean ainbeste al-
diz luñera eroriaz,
eraman zenduen be-
zela, nai nukè nik
ere munduko zori-
gaitz eta lanbide go-
goñen gurutzea zure
antzera ala eraman,
gero betiko zeruan
zure gurutze santu-
aren ondorengo ede-
rak iristeko. Alaxen.

*Jauna pekatu egin det. — Aita gurea
ta gañerakoak, lenbiziko geldialdian be-
zela.*



LAUGARREN GELDIALDIA
*Jesus'ek bere Ama maitea
arkitzen du.*

Kristo, goratzen...

Ama maitea! gur-
rutze aztunaz zama-
tua ta burutik ixu-
ritzen zitzaion odolez
arpegia estalita zure
seme Jesus ikusirik.
igaro zinduen samin-
tasunagatik: aŕen!
nere pekatuai daŕai-
ten gaitz guzia eza-

gutzeroa iritxi zadazu,
ori ezagutuaz ta bio-
tzez negar egiñaz,
arki nadiu noizbait
Semearen ta zure al-
damenean betiko zo-
rionean. Alaxen.

*Jauna, pekatu egin det. — Aita
gurea la gañerakoak, lenbiziko gel-
dialdian bezela.*



BOSGARREN GELDIALDIA

*Jesus' i gurutzera ematen
laguntzen diote.*

Kristo, goratzen...

Jesus maitea, zu-
re ikasbidea egipen

onen bidez gurutze
aztuna eramaten e-
rakutsi ziñiguzunai,
iguzu laguntza gaur-
tik beste gauzetan ez
pentzatuaz, nekez
beterik daudeu guru-
tzearen bideai ondo
jaraitzeko. Alaxen.

*Jauna pekatu egin det.—Aita gurea, ta
gañerakoak, lenbiziko geldialdian beze-
la.*



SEIGARREN GELDIALDIA
*Beronika'k Jesus'i arpegia
garbitzen dio.*

kristo, goratzen...

Jesukristo nere

Jauna, zure naitasun
aundi ta irazekiaren
izenean eskatzen di-
zut ezarri zaidazula
nere animaren ba-
rrenean zure arpegi
eder oren iduria, zu
beti maitetuaz zorio-
na irabazteko. Alaxen

*Jauna, pekatu egin det.— Aita gurea,
ta gañerakoak, lenbiziko geldialdian be-
zela.*



ZAZPIGARREN GELDIALDIA
*Jesus bigarren aldiz gurutzear-
rekin luñera erortzen da.*

Kristo, goratzen...

Jesus maitea, zu-

re ontasun azkengabearen izenean eskatzen dizut eramangaitzazula zeruko aingeru ta Santuen aldamenera, ta zure gurutzearen aztuntasuna ezagunazirik, argi dezazula nere adimena, oker ta ozen guzien aztuna ta gaitza ezagutzeko, ta oyetzaz egizko damutasuna izateko.

Alaxen.

Jauna pekatu egin det. — Aita gurea, ta gañerakoak, lenbiziko geldialdian bezela.



ZORTZIGARREN GELDIALDIA

Jerusalen'go alabai itz egiten diote Jesus'ek.

Kristo, goratzen...

Jesukristo nere

Jauna: Kalbarioko

bidean oñaze ezin an-

diagoarekin zijoaze-

nean, an irten zitza-

izkizun emakumeai

nola ta zergatik ne-

gar egin erakutsi zi-

ñiena: zuzendu itza-
zu gure egite guziak
zure adizkidetasun
eta zoriona iristeko.
Alaxen.

*Jauna pekatu egin det.—Aita gurea,
ta gañerakoak lenbiziko geldialdian be-
zela.*



BEDERATZIGARREN GEL-
DIALDIA

*Jesus gurutze santuarekin iru-
garren aldiz erortzen da.*

Kristo, goratzen...

O Jesus nere ani-
maren Eroslea, zu-
re neke ta eriotzaren
bidez arindurik gu-

rutzearen aztuntasu-
na eramangari egin
zenduena! ipiñi eza-
zu gure biotzetan
gurutzearenganako
naitasun ta zaletasu-
na, beste gauzik ez
maitatzeko ezpada
Zu, Jesus gurutzil-
tzatua, Aita ta Espi-
ritu Santuarekin bi-
zi ta betiko agintzen
dezuna. Alaxen.

*Jauna, pekatu egin det. — Aita gurea,
ta gañerakoak, lenbiziko geldialdian be-
zela.*



AMARGARREN GELDIALDIA

*Jesus'i soñekoak kentzen diz-
kate.*

Kristo, goratzen...

Jesukristo gure
Jauna, gurutzean ar-
tu zenduen oñazien
izenaz ta beazunez
nastutako ardoa e-
maten eramana zi-
zutenaz, argitu gai-
tzatzu zure laguntza-
ren bidez; ta guru-

tzean arkitzen diran
ondasunak ezagu-
tuaz ta beti bide zu-
zen au jaraituaz, ira-
bazi dezagula betiko
zoriona. Alaxen.

*Jauna, pekatu egin det.— Aita gurea,
ta gañerakoak, lenbiziko geldialdian be-
zela.*



AMAIKAGARREN GELDIALDIA

Jesus gurutziltzatzen dute.

Kristo, goratzen...

Jesus nere maitea,
gurutzean zintzilik
oñaze gogorretan ain-

beste neke eramán
zenduena, egizu ne-
re gorputz eta ani-
mañen indar eta on-
bide guziak zu go-
ratzeko izan diteze-
la; ta iltze gogoréz
nigatik josia izan
ziñan-ezkero, josi na-
zazu zure maitatze
ta laguntze santuan,
gero zurekin zeruan
izateko. Alaxen.

*Jauna, pekatu egin det.— Aita gurea,
ta gañerakoak, lenbiziko geldialdian be-
zela.*



AMABIGARREN GELDIALDIA

Jesus gurutzian iltzen da.

Kristo goratzen...

Jesukristo nere
Jauna, zu igo zihian
gurutzera zeru lu-
retako ondasun gu-
ziak neri eman ta
gizonen biotzak zu-
reganatzeko. Era-
man ezazu ba da ne-
re biotza zure on-
doren: eta egizu zu

bestarik maitatu ez
dezala, munduko a-
rókeri ta zorakeriak
goñotatuaz, onela be-
tiko zoriona iriste-
ko. Alaxen.

*Jauna pekatu egin det.—Aita gurea
ta gañerakoak, lenbiziko geldialdian be-
zela.*



AMAIRUGARREN GELDIALDIA

*Jesus'en gorputz illa bere
Amaren besoetan dago.*

Kristo, goratzen...

Ama Birjiña oña-
zez betea! ikusi izan
zenduen jeisten gu-

Zeruko Lorea—8.

rutzetik zure seme
Jesus'en gorputz ila
odolez itsusitua, bu-
rutik oñetara zauri
egiñik, ikusketa
mingaři onen bidez
zurebiotzaren samin-
tasun guziak berri-
tzen zirala, egizu,
Ama, emendik au-
rera beti au gogoan
izan dezadala. Ala-
xen.

*Jauna, pekatu egin det.—Aita gurea
ta gañerakoak, lenbiziko geldialdian be-
zela.*



AMALAUGARREN GEL-
DIALDIA

*Jesus'en gorputz illa lurpe-
tzen dute.*

Kristo, goratzen...

Ama biotz bigu-
ña! itsasoa bezin aun-
dia zan zure biotza-
ren samintasuna, zu-
re seme maite Jesus'
en gorputz ila obian
sartzen ikusi zen-
duenean! Ama nai-
gabetua! Zeñek poz-

tuko du zure biotz
iluñdua, ta nork a-
rinduko ditu zure
naigabeak, inor ere
Jesus'en eriotzari bi-
derik eman ez dionik
mundu ontan ez ba-
dago? Negar malko
miñetan urtu dedi-
la nere biotza egin
dituen gaiztakeria-
katik; ta bizitiz ontan
izan zenduen oña-
zeak beti gogoan eu-

kiaz, iritxi dezadala
zure aldamenean be-
tiko zorrian gero iza-
tea. Alaxen.

*Jauna, pekatu egin det. — Aita gurea,
ta gañerakoak, lenbiziko geldialdian be-
zela.*





AITORTU AURREAN

laguntza eskatuaz egin bear dan
otoitza.

Pekatariari bar-
katzeko beti gertu
zauden nere Jaun-
goiko maitea, begi-
ratu zaiozu gogo o-
nez beterik zugana
datorren anima oni,
arkitu nayaz damu-
tasunezko ur osa-
sungarriak, bere u-

tsaldien kutsuak
garbitzeko.

Egizu, nere Jaungoiko maitea! ni oetara bear dan bezela urreratzea; argitu zadazu nere gogoa, nere pekatu guziaz garbi ezagutzeko; piztu ezazu nere biotza berriz ez erortzeko, ta mugitu itzatzu nere ezpañak ondo aitortzeko onela guzien barkapena eskuratu dezadan.

Aitorlu baño len egin bear
dan pekatuen gogoratzea.

Ikusi aurrena lenago egin diran aitor-tortzetan pekatuen bat utzi ote dan, gaztakeriz edo lotsez edo bestela askotan esatea aztu dalako.

Ikusi, esan ote ziozun pekatua apaizari onek ez ondo aditu edo ezagutzeko eran, aundia edo larria zalako.

Ikusi, lengo aitor-tzetako penitentzia

bete zenduan.

Ikusi, pekatuan ez erortzeko alegin guzia egin dezun.

Gauz oek guziak beardira argi ta garbiesan aitorpen ona egin nai bada, ta ez da pekatuen gogoratzea egin bear azkenengo aitortzetik, baizikan ikusi bear daere lenagokoetan zerbait utzi ote dan esan gabe.

Jainkoaren aginduak

1.^a Goizeko ta ga-

beko otoitzak egin
al ditut bear diran
bezela, edo laisterka,
zer egiten nuen bu-
ruan artu gabe?—
Gauza santu edo
persona onaz iseka
eta parra egin al det?
Gauza gaiztoak ira-
kurri al ditut?

2.^a Itz gaiztorik e-
san edo gaizki itz
egin al det Jaungoi-
ko edo Santuen kal-
tez?

3.^a Jayegunean lan
egin al det, mezeta-

ra uts-egin ote det edo joan naizenean arretik gabe egon al naiz? Itz edo parririk egin al det ondo entzutea besteri eragotziaz?

4.^a Nere aita, maisu edo besteai bear dan begirapena galdu ote diotet? Par egin edo erantzute txarren bat eman al diet? Zarrak bear bezela begiratu al ditut?

5.^a Nere anai edo

lagunakin asarretu
al naiz nere izakera
gaiztoagatik? Gai-
tzikegin al diotet be-
ren kaltez gaizki-e-
saka, gezurretan, e-
do salatu al ditut
kastigatzeagatik?

6.^a ta 7.^a Izan al
det gogorapen gaiz-
torik, edo ikusi edo
egin al det lotsaga-
rririk? Kantatu, edo
entzun ote ditut kan-
tazen pozik kanta
gaizto, zikin eta la-
sairik?

7.^a Ostu al diotet nere gurasoai edo iñori dirurik? Zenbat edo zer gauza ta zenbat bider? Eman al diot bere jabeari arkitu nuana, jakiñaz zein zan?

8.^a Gezurrikesaten ote det? Esan al det bateren bat besteri kulpa boteaz? Beste-
rengatik gaizki esan al det?—Oker oek guziak esan bear dira argi ta garbi.

Ona emen nola aitortu bear dan.

Apaiz jaunaren
zai zauden bitarte-
an, egon bear dezu
zure pekatuz gogo-
raturik, Sinispen,
Itxodopen ta Mai-
tetasunezko egipe-
nak egiñaz; esan za-
zu gero *Ni pekataria*
ta asiera emango
dionzu apaiz jaunari,
esanaz: *Agur Maria*
guztiz garbia. Onen-
beste egun, edo o-
rrenbeste illabete
dira aitortu nitzala,

bete nuen orduko
penitentzia; nere pe-
katuen gogoratzea
egin det ta nere bi-
ziera zuzentzeko as-
moa badakart.

Lenengo aginduan
egin det onelako ta
alako pekatu ta.....
onela aitortuko di-
ra⁷ beste pekatu gu-
ziak.





Aitortzeko ta Jaun-artzeko

bea diran bezela egiteko

OTOITZAK.

*Pekatuak ondo ezagutzeko argia
Jaungoikoari eskatzeko otoy.*

Jauna, ezagutzen
det nere pekatu eta
gaiztakerien aundi-
tasuna, ta eskatzen
dizut baita ere be-
ren sendagai edo
zuzenbidea. Zuzen-
du ezazu pekatu-
ko daukadan griña

gaipto ta indartsua.
Egin ezazu, Jaun-
goiko guztiz altsua!
zure maitetasuna-
ren bidez utzi deza-
dala nik daukadan
ta nere egiterik one-
nak galtzen dituen
arrokeri ta nerekoi-
tasuna, ta naitasun
orrek artu ditzala
indar aundik nere
biotzean. Argalta-
suna, gezurra ta pe-
katua baizik beste
gauzik ezdago ni-
gan, Jauna; beraga-

tik biotz biotzetik
eskatzen dizut, zure
semearen eriotz e-
ta egite on guzien
izenean, pekatu gu-
zien barkapena, ta
egizko penitentzi-
baten bidez oek zu-
zentzeko laguntza.

Otoitz au azkendu ondoren esango da,
Ni pekataria, etc.

Aitortze ondorengo otoitza

Nere Jaun ona!
nitzaz izan dezun
errukia beti eskertu-
ko dizut, pekatu gu-
ziak barkatu, ta be-
tiko eriotzatik azka-

tzen nazulako. Nere animak orain ta beti bedeinkatuko zaitu, ta egin diozkatzun eskerrak iñoiz ez ditu aztuko. Ez al det zure nayera lotua egon bear, nitzaz izan dezun errukiaren ondoren? Beragatik, nere animaren Erosleona, eskeñi det zure laguntzarekin zure aginduak bear bezela betetzea. Ezarri ezazu zure bil-

durra nere biotzean
aginduen bidetik
jarraitzeko: bada on
zait zurekin batean
joatea, nere itxedo-
pena zure nayan ja-
rriaz. Egizu ez na-
dilla zugandik al-
dendu Jauna, ta zu-
zendu nazazu bide
on ta zuzenetik ibi-
lliaz egunen batean
zure etxeko ontasu-
nak izateko. Iritxi
zaidazu nere Jau-
na, esker au; ez di-
zadazula ukatu, zu-

ganitxedoten dute-
nak zuk zeruratzen
dituzulako.

JAUN-ARTZE AURRERAKO

Jaungoiko gure Jaunari ototza

Jaungoiko biotz
biguña! Nik banu
zutaz, eskatzen di-
dazun guzia neri e-
mateko zuk nere-
tzat daukazun nai-
tasuna! Zuk eman
didazu, zure naita-
sunaren bidez zori-
on aundi bat, ta zu-
re Semea da bera:
au artzera nator,

gero nere biotza-
ren naitasun guzia-
rekin zuri eskeintze-
ko, onela zure mai-
tasun ta nere esker
ona berdintzeko bi-
dea arkituaz. Nere
Jaungoikoa! egizu
sar dedilla beregan
nere animak geyago
bidegabekeririk ez
egiteko.

Jesukristo gure Jaunari otoitza

Nere animaren ze-
ruratzallea, gogo
aundiz nai zaitut
artu nere barrenen,

argal ta gaiztoa ban-
naiz ere. Beragatik
garbitu ezazu bizi-
tzera zatozen leku-
au ta kendu itzatzu
bertatik zure begiak
igui dituzten gau-
zak, ta onela garbi
geldituaz ta zure
laguntzarekin gero
tageyagozabalduaz,
zure naitasunaren
aunditasuna obeto
artuko du.

Espiritu Santuari otoitza

Espiritu Santua!
Ama Birjiñaren

gorputz ta anima
Seme Jaungoikoa
bearzan bezela bere
barrenen aragiz jaz-
teko ipiñi zendue-
na; atoz, sar zaite
nere barrenean, ta
ipiñi itzazu gertu
nere gorputz ta ani-
ma Jaungoiko gi-
zon egiña artzeko.

Apaiza bertaratzen danean Jaun-
artzera dijoanaren aurrera Ostia ja-
soaz esaten du: *Ecce Agnus Dei:*
ecce qui tollit peccata mundi: ta o-
rrek esan nai du: *begira zazute*
jaungoikoaren bildotxa, au da mun-
duko pecatuak kentzen dituen,
orduan esango du Jauna artzera
dijoanak:

Osti bedeinkatua, aingeruen janaria! maitatzen zaitut biotz guziz; maitatzen zaitut nere Jaungoiko ta Salbatzallea, sinisten ta uste det nere bularreran egiten dezun egoeraren bidez, nere biotza sendatuko dala ta zure laguntza obetuko naizela.

Gero esango du biotz-biotzetik: Nere Jesukristo Jauna, ez naiz ni, nere etxe kaxkarreran zu sartzeko gai: bannan zure itz guztiz santuaz izan bitez barkatuak nere pekatuak, ta nere anima sendatua ta zeruratua.

(Au esango da itu bider

apaizarekin batean.)

Jauna artzean, aoz ez baizik biotzez bakarrik, esango du:

Jesukristo nere Jaunaren gorputzak nere anima zaindu ta eramán dezala betiko bizitzara. Alaxen.

Jaun-artze ondorengo otoitza

Kristoren anima guziz santua done-tu nazazu: Jesukristo nere Jaunaren gorputza, zeruratu nazazu: Kristo'ren odol garbia, ase nazazu: Kristo'ren sayatzeko ur garbia,

garbi nazazu: Kris-
to'ren arpegiko izer-
di ongarria, senda
nazazu: Kristo'ren
neke errukarria, in-
dartu nazazu. O Je-
sus ona! zaindu na-
zazu: zure zaurien
barrenen ezkutatu
nazazu: ez nazazula
utzi zugandik al-
dentzen: nere erio-
tzako garayan nere
aldezegizu: lagundu
zaidazu, Jauna, zu-
gana joateko: ta ipi-
ñi nazazu zure al-

damenean, aingeru
ta santu guziakin
zu beti or goyen go-
ratu ta maitatzeko.
Alaxen.

JAUN-ARTZEAREN

*ondorengo eskerrak emateko Tomas
Santu erakuslearen otoitza.*

Jaungoiko gure
Jauna, guzialdun e-
ta betiko aita! Eske-
rrak ematen dizki-
zuteman dizkidazu-
lako janaritzat zure
seme bakar Jesu-
kristo Jaunaren
gorputzta odol gar-

bia. ta au guztia ez
arkitu nazulako es-
ker oen gai, baizi-
kan zure errukita-
sun azkengabeaga-
tik, oben ta bidega-
bekerri asko egin
dizkitzut eta. Eska-
tzen dizut Jaun ar-
tze au izan dedilla
zure aserrea azken-
duaz nere pekatuen
barkapena iristeko;
sinispen bizia izate-
ko; sinispen onekin
Zure babesean ipi-
ñiaz, nere asmo gaiz-

toak uzteko; nere
gaiztakeriak ezerez-
teko; nere naitasun,
eramankizun, apal-
tasun ta beste onbi-
de guziak geyagotze-
ko; nere etsayen e-
raso gogorren au-
rrean lagun izateko.
Zurekin betiko bat
egin nazan, nere
Jaungoikoa! ta az-
kenik, zeruko bide
ederra arkitzeko.
Baita ere eskatzen
dizut munduontan-
zurre mayean artu

nazun bezela, zure
maitatuentzat bes-
te munduan dauka-
zun mayera ere ar-
tu nazazula; bada-
an, Seme ta Espiri-
tu Santuarekin zu-
zera egizko argia,
atsegin osoa ta be-
tiko zoriona.

Alaxen.

Jesus'en Biotz Maiteari

ziñez na! dion biotz baten jarduera

Jesus nere maitea-
ren biotzerrukitsua,
onbide guziak dau-
den tokia, esker gu-

zien iturriazken ga-
bea, zer arkitu dezu
nigan, ni orrenbes-
te maite izateko?
Nigana agertu de-
zun naitasunak si-
nisterazten dit on-
do artuko dezula
nere maitetasuna.
Artu ezazu, nere E-
roslea, zure biotz
maitetsuari eskein-
tzeko daukadan go-
go bizia. Nik eskein-
tzen dizut nere bio-
tza berak dauzkan
asmo on guziakin,

ta oek zureen antzekoak izatea naidet. Emen nago, zure biotz onari osotorro emana; guzia zurea naiz. Bai aundia dala neretzat daukazun errukitasuna, nere biotzaren eskeintza ontzat artzen dezunean! Emendik aurrera biotz au zurea izango da, ta munduko gauzai lekurik emango ez diete. Zure biotzari egiten

diodan eskeintz au,
bere naitasuna gaiz-
ki eskertuaz orain-
daño egin diozka-
dan bidegabekeriak
estaltzeko da. Nere
eskeintza laburra
da, bañan nik eman
nezakean ta berak
eskatzen duen guzia
ematen diot. eta au
ematen diot iñoizez
berriro kentzeko as-
moan.

AMA BIRJIÑAREN BEZPERAK.

Lukas Deuna, I.

MAGNIFICAT ANIMA MEA.

I. Nere gogoak
Jauna goratzen du.

II. Eta nere ani-
mak Jaunaren Sal-
bartzalleagan atse-
gin izan zuan.

III. Bere mirabe
onen txikitasuna be-
giratu zulako ta or-
aindik bedeinkatua
esango didate gizar-
di guziak.

IV. Gauza aundiac
egin dizkidalako al-

tsua danak, eta santua bere izena.

V. Eta Bere errukia gizaldirik gizaldi, berari bildur dutenen gañean.

VI. Al erakuspenera egin zuan bere besoaz: arroak isuri zituan bere biotzaren asmotik.

VII. Altsuak beren jauntasunetik kendu zituan, eta goratu zituan txikiak.

VIII. Gosetiak on-

dasunez bete zituan:
eta aberatsak ezer
gabe utzi zituan.

IX. Israel, bere
erri autatua, artu
zuan, bere errukia
oroiturik.

X. Berak itz egin
zuan bezela gure
asabai: Abrahaman be-
re ondorengoai edo-
noiz.

Aitari eta Semea-
ri eta Espiritu San-
turi lenendik zan
bezela orain eta be-
tikotasun guzietan
Aintza. Alaxen.



Errosario Santua

Era bitara da errosarioa: bati deritza Ama Birjinaren *koroa* zazpi amarrerekokin, gañera bi Agur Mari, eta azkenean Aita Santuaren izenean Aita gure bat eta Agur Mari bat, au bera esanda irabazten dute Aita Franzisko santuaren iru ordenetakoak barkapen osoa.

Besteari deritza *errosarioa*, eta onek ditu amabost amarreko, ta esan di-

tezke amabostak bata bestien urrena, edo bosnaka edo banaka. Eta dan bezela dala, amabostak esanezkero irabazten da barkapen osoa.

Baña au irabazteko esan bear da bai bata ta bai bestea gogo aundiaz, aoz ta biotzez, ez erdi lo, gogo gabe ta burua beste lekutan dala; betaz, eta itzak ortz-arte an nastutzen ez dirala, itxodonaz batak osotoro esan artean besteak erantzuteko, eta eskatzen zayola Ama Birjiñari, arren, gure bitarteko izan dedilla iritxi dezagun Jesus maiteagatik bear de-

gun laguntza bere gorape-
nik aundienerako ta gure
animen onerako.

Onezaz gañera gogora
itzazu amarrekobakoitzean
egunari ta amarrekoari da-
gozkion misterioak, au-
rrerago esaten diran be-
zela.

ASTELEN OSTEGUNETARAKO

Atsegiñezko Misterioak.

Ziñatu, Kontriziozko Egintza
egin, urrengo misterioak kantatu
eta gero Aita gurea ta Agur  Ma-
riak esaten dira.

Jesus onaren Ama maitea,
Laguntza dizut eskatzen
Bost misterio pozez beteak
Lagun zaiguzu kantatzen.



LENENGO MISTERIOA

Jaungoikoaren Semea gizon egitea.

Zeruetatik ekarri zizun
Aingeru batek albistea
Zugan aragiz jantzikozala
Betiko Aitaren Semea.

Guziak erantzuten dute:

*Agur Marien amarreko au
Aita gureaz batean,
Birjiña eder maite berari
Esaten asi gaitean.*

BIGARRÉN MISTERIOA

*Ama Birfiñak Isabel Santuari
egin zion ikustaldia.*

Jainkoaz aurdun zu zoaz
Ikustera lengusua, (Ama
Eta Juan Santu jayogabea
Esker ugariz bete da.

Agur Marien, . . .



IRUGARREN MISTERIOA

Iesukristo'ren jayotza.


Jayo zanean zure Semea
Zerau neskutza utzirik,
Gelditu giñan guzti-guz-
(tiok
Ondasun gozoz beterik.

Agur, Marien,

LAUGARREN MISTERIOA

Ama Birjiñaren elizan sartzea.

Jesusalen'go Eliz santuan
Jesus eskeñi zenduan,
Eskein gaitzatzn gu ere
(orain
Jaunak beretzat argaitzan,
Agur Marien,



BOSGARREN MISTERIOA

*Jesus galdu ta irugarren egunean
arkitzea.*

Galduezkero, billa zen-
Elizan zure Semea, (duan
Poz onegatik nai ez begizu
Gu pekatuan iltzea.

Agur Marien,



ASTEARTE-OSTIRALETARAKO
Naigabezko Misterioak.

Jesus onaren Ama maitea
Laguntza dizut eskatzen,
Bost misterio miñez be-
(teak.
Lagun zaiguzu kantatzen.

LENENGO MISTERIOA
Baratza santuko Jesus'en otoitza.
Jetsemani'ko baratza artan

Auzpez lurrean jarririk,
Zegoan Jesusodol ixurtzen
Biotza berriz larririk.

*Agur Marien amarreko au
Aita gureaz batean,
Birjiña eder maite berari
Esaten asi gaitean.*

BIGARREN MISTERIOA

Jesus'en astiñaldi ikaragarria

Bost milla zigor artu zitu-
Gure pekatuagatik, (an
Zer gaitz aundia dan pe-
(katua
Jakin ezazu emendik.

Agur, Marien, . . .



IRUGARREN MISTERIOA.

Jaunari arantzazko koroa ipintzea.

Arantza zorrotz gogor ta
Koroaturik burua, (latzez

Nunbait Jesus'ek kendu
(nai zigun
Gure aundiuste itxua.

Agur, Marien,




LAUGARREN MISTERIOA.

Jaunak gurutzea eramatea.

Gurutze astunbat lepoan ta
Lapur gaiztoen erdiyan,
Eramanzuten Jesusmaitea
Kalbarioko bidean.

Agur, Marien,



BOSGARREN MISTERIOA.

Jesukristo'ren gurutzeko eriotza.

Iltzez josirik, ai! gurutzean
Eman du Jaunak bizia.
Gure animak gal etzitezzen
Ikusi zuan guzia.

Agur, Marien,




IGANDE, ASTEAZKEN TA
LARUNBATERAKO

Zorionezko Misterioak.

Jesus onaren Ama maitea
Laguntza dizut eskaizen,
Bost misterio glorizko
(oek
Lagun zaiguzu kantatzen.





LENENGO MISTERIOA.

Jesukristo'ren piztuera.

Miñen ondoren, Ama mai-
(tea

Ikusten dezu pizturik,
Illen artetik zure Semea
eguzki eder egiñik.

*Agur marien amarreko an
Aita gureaz batean,
Birjiña eder maite berari
Esaten asi gaitean.*

BIGARREN MISTERIOA.

Jaunaren zeruetara igotzea.

Berrogei egun emen egin-
Zerura igo danean, (da-
Ondo pozikan artu du Ai-
Bere eskuiko aldean. (tak
Agur, Marien...

IRUGARREN MISTERIOA

Espiritu Santuaren etorrera.

Gero Espiritu Santua bera
Sutan zerutik zetorren,
Apostoloak eta besteak
Maitetasunez betetzen.

LAUGARREN MISTERIOA.

Ama Birjiña zerura igotzea.

Jesus maiteak ikustearren
Zeruan zoriondurik,
Zeruko Izarra. — 11.

Ara zaramaz gorputz ta
(anima
Aingeruz inguraturik.
Agur Marien. ...



BOSGARREN MISTERIOA.

Maria txit Santuaren glori aundia.

Irutasunak jarri zinduan
Seme Jaunaren aldean,
Beti ta beti idukitzeko
Beste guzien gañean.

Agur Marien....

*Gure laguntzara Jainkoaren Ama
are geyago beartzeko esango da
letani au.*

Kyrie, eleyson.

R. Kyrie eleyson.

Christe, eleyson.

R. Christe eleyson.

Kyrie eleyson.

R. Kyrie eleyson.

Christe, audi nos.

Christe, exaudi nos.

Pater de cœlis Deus,
Fili Redemptor mundi Deus,
Spiritus sancte Deus,
Sancta Trinitas unus Deus,

Miserere nobis

Sancta Maria,
Sancta Dei genitrix,
Sancta Virgo Virginum,
Mater Christi,
Mater divinæ gratiæ,
Mater purissima,
Mater castissima,
Mater inviolata,
Mater intemerata,

ORA PRO NOBIS

Mater immaculata,
Mater amabilis,
Mater admirabilis,
Mater Boni Consilii,
Mater Creatoris,
Mater Salvatoris,
Virgo prudentissima,
Virgo veneranda,
Virgo prædicanda,
Virgo potens,
Virgo clemens,
Virgo fidelis,
Speculum justitiæ,
Sedes Sapientiæ,
Causa nostræ lætitiæ,
Vas spirituale,
Vas honorabile,
Vas insigne devotionis,
Rosa mystica,
Turris Davidica,
Turris eburnea,
Domus aurea,
Fœderis arca,
Janua Cœli,
Stella matutina,
Salus infirmorum,
Refugium peccatorum,
Consolatrix afflictorum,

Auxilium christianorum,
Regina Angelorum,
Regina Patriarcharum,
Regina Prophetarum,
Regina Apostolorum,
Regina Martyrum,
Regina Confessorum,
Regina Virginum,
Regina Sanctorum omnium,
Regina sine labe originalis con-
cepta,
Regina sacratissimi Rosarii,
Regina Pacis,

ORA PRO NOBIS

V. Agnus Dei, qui tollis peccata
mundi.

R. *Parce nobis, Domine.*

V. Agnus Dei, qui tollis peccata
mundi.

R. *Exaudi nos, Domine.*

V. Agnus Dei, qui tollis peccata
mundi.

R. *Miserere nobis.*

V. Ora pro nobis Sancta Dei ge-
nitrix.

R. Ut digni efficiamur promissio-
nibus Christi.

Zein ederra zeran nere Ama maitea, garbi-garbia kutsu gabea, zure soñeko usayak beste usai guztiai eragiten dio.

OTOYA.

Gure Jaun eta Jaungoikoa, eskatzen dizugu Ama guztiz ona pekatuaren kutsugabe alde aurrez gorde zenduen bezela, ama laztan onen bitartez eman eiguzula guri ere zugaratzeko laguntza. Olaxen izan dedilla.

Orain emen bakoitzak eskatuko du bearrean arkitzen diran bere lagunena alde, il diranena alde eta erlijio santua alde guzietara zabaldu dedin.



AURGINTZAN DAUDEN EMAKUME,
ETA EMAKUME AGOR, ANTZU EDO AURRIK
EZ DUTENEN LAGUNTZALLE BEREZKO
ETA SANTU GUZIZ MAITAGARRI

Erramon santu jayogabearen
BEDERATZIURRENA.

Negarrezko ibar ontan
arkitzen geranok, bai abe-
rats ta bai beartsu, bai
aundi ta bai txikiak ere
nekez ta naigabez beteak
gaude eta beragatik Goi-
ko Jaunaren laguntzaren
bear gera: *Eska zazute*
eta izango dezute, billa
zazute eta arkituko de-

*zute Jainkoak berak eska-
ña dauka eta artantxen
alegindu bear gera. Ba-
ñan batzuek Jainkoagan-
dik ez dute ezer artzen
eskatzen ez diotelako; bes-
teak, eskatuarren, ez dute
ezer irixten eskatzen ez
dakitelako edo gaizki es-
katzen dutelako. *Ez dezu-
te artzen, Jaunak dio, gaiz-
ki eskatzen dezutelako.*
Batzuek uts-egiten dute
eskatzen duten gauzan
eta besteak eskatzeko eran.*

Gure Jainkoari eskatu
bear zaizka beti gauz onak
eta oyen artean lenbizi
dagoana da noski, gu ze-
ruratzea; baña lurreko

gauzak, bizitza, osasuna, ondasunak eta gaitzetatik sendatzea eskatu bear zaizka esanaz ondoren: *zure zorion geyagorako ta nere onerako baldin bada.*

Santu guziak Jainkoarekiko asko dezaketen bitartekoak dira, Jainkoak bere santu guziak asko maite ditualako. Santu oyetako bat ondo arrigarria bera, izan da Erramon santu jayogabea. Bere ama iru egunez aurretik ildakoaren sayetsetik, sayetsau santuaren osaba Kardona'ko Bizkondeak ildakoari burniaz irikita, aterra zuten, eta bere iltzeko

garayan Goiko Jauna bera etorri zitzayon bere eskuz santuari Jauna ematera; eta bere bizitzaren asierata azkena ain arrigarriak izan ba-ziran, bere biziera guzia ere ezin ederragoa izan zan.

Santu maitagarri onen bederatziurrena ondoren arkituko dezu ba, eta uste osoa izan dezazuke bere bitartez ezkatzen dezuna, zure onerako baldin bada, Goiko Jaunak pozik emango dizula.

Bederatziurren au egiteratzen danak Erramon santuaren irudibaten aurrean belaunikatuaz bere biotza Jainkoagana jaso eta bere

gogo, itz eta egipen guziak berari
eskañiaz asiko da onela esanaz:

Egunerorako otoitza.

Erramon santu zorion-
tsua! Biotz-biotzez poztu-
tzen naiz Jainkoak zu ain
santu aundia egin izana.
Eta zuk gero Jainkoaren
aldez eramán izan zĩñi-
tuan oñaze ikaragarriatik
eskatzen dizut Goiko Jaun
berari eskatu zatzaikiola
sinismen deunaren sabal-
tzea guziok bera maite de-
zagun.

Baita ere eskatzen dizut
zure amaren barrenen
ilda gero ordu asko egon
ziñan bezela, nere anima

ere gorputzean itxian egon ondoren atera dedilla gero gure Jainkoa betikotasunean goratzeko; eta au obeto irixteko eskuratu zaidazu orain zuri eskatzera nijoakizun laguntza,

(Emen eskatuko da bakoitzak iritxi nai duan laguntza, eta gero esango du):

Onela uste det egingo dezula, diotenez, zuk eskatzen dezun guzia iristen dezulako. Bañan nere onerako ba'litzake laguntz oriez iristea, emaidazu, berderik, ortarako bear detan eramankizuna, gero azkenik zorioneko eriotz bat izan ondoren betiko zorionak izan ditzagun. Alaxen.

Lenbiziko eguna.

Guzia dezazukean Jaun eta Jainkoa, Erramon santu jayogabeari egin zĩñizkiozun laguntzaketik eskerrak ematen dizkitzut; ta beraren ontasunakatik eskatzen dizut zu santuaren aldez ain esku zabala izan zĩñan ainbat nere aldez ere izateko bederatziururen ontan eskatzen dizudana neri emanaz geyago maitatu zaitzadan.

Alaxen.

Au bukatzean esango dira iru *Aita gure, Agur Mari ta Gloria Patri.*

Bigarren eguna.

Egunerorako otoitza, 163'garren orrian.

Nere Jesus ona, nere Er-
osle ta Jauna, nik ematen
dizkitzut eskerrak Erra-
mun santu jayogabeari e-
man zizkiotzun laguntza-
katik. Zure maitatzalle
zintzo orren gain zuk egin
ziñitun gauz arrigarriak
ematen ditet bide, nere
Jainkoa, bere bitartez eta
bere ontasunez nere es-
kabide au zure izen aun-
diagora bete dezazun; Zu-
gan uste det, nere Jesus
ona, Santu onen bitartez
zuregana agertu dienai

lagundu diezun bezela ne-
ri ere lagunduko didazu-
la. Alaxen.

Au bukatzean esango dira iru
Aita gure, Agur Mari ta Gloria
Patri.

Irugarren eguna.

Egunerorako otoitza, 163'garren orrian.

Atsekabetutako guzien
Ama errukitsua! Ain aun-
dia dan Amagana seme
argal bat bezela nator es-
kerrak ematera Erramon
Santu jayogabeari eman
zizkiozun laguntz aundia-
gatik beren bidez nik ere
bederatziurren ontan es-
katzen dizudana iristeko.

Uste det ba, Santu oni

ezer ukatu etziozun beze-
la, bere bitartekotasuna
zure Semearengana ez
diazula ukatuko, nik es-
katutakoa eman zaitzadan
zure zorion geyagorako,
zure semearenerako ta ne-
re onerako. Alaxen.

Au bukatzean esango dira iru
*Aita gure, Agur Mari ta Gloria Pa-
tri.*

Laugarren eguna.

Egunerorako otoitza, 163' garren orrian.

Nere Jaun eta Jainkoa,
nik eskeintzen dizkitzut
Erramon Santu jayoga-
bearen ontasun aundiak
eta eskatzen dizut beren
bidez onbiderik aundie-
nak neri ematea, zure a-

gindu guziak beteaz eta nere guraso ta gañekoen agindutakoak egiñaz; eskatzen dizut, batez ere, bederatziurren ontan eskatzen dizudana iristea.

Alaxen.

Au bukatzean esango dira iru *Aita gure, Agur Mari ta Gloria Patri.*

Bosgarren eguna.

Egunerorako otoitza, 163' garren orrian.

Nere Jaun ta Jabe maittea, zure seme argal bat izanarren, zure aurrean belaunikatzen naiz eta gogorazten dizut Erramon Santu zoriontsuak eramane izan zuan bizitz beartsua
Zeruko Izarra. — 12.

eta biotz-biotzez eskatzen dizut bere bizitzaz zurekiko irabazi izan zituan irabazpenakatik garbitu dezazula nere biotz gaiztoa, egitazko beartsutasuna nere gogo edo animara bialduaz munduko gaiztakeri guzietatik aldenduaz zure maitetasunari alkartua egon nadin. Eta batez ere emaidazu bederatziurren ontan eskatzen dizudan laguntza zure izen ta zorion aundigorako baldin ba'da. Alaxen.

Au bukatzean esango dira iru *Aita gure, Agur Mari ta Gloria Patri.*

Seigarren eguna.

Egunerorako otoitza, 163'garren orrian.

Nere Jaun ta Jainko maitea, ain garbitasunaren zalea agertu zeranezkero, zure Seme aragiz jantzia Ama Birjiña garbi-garbi bategandik jayo izana egiteraño, nik eskatzen dizut, Jauna, Erramon Santu jayogabearen garbitasuna. Eta santu onen garbitasunak berari eman zizkan ontasunakatik eskatzen dizut nere gogo edo animako kutsu guztiak garbitzea Jesukristo gure Jaunari bat-egiteko gai izan dedin eta bederatziurren ontan

eskatutako laguntza iritxi
dezan. Alaxen.

Au bukatzean esango dira iru
*Aita gure, Agur Mari ta Gloria Pa-
tri.*

Zazpigarren eguna.

Egunerorako otoitza, 163'garren orrian.

Nere Jaun ta Jabea, Zuk
bakarrik dakizu Erramon
santuak izan zizun maite-
tasunaren gar bizia eta
berak maite zizun bezela
nai izan zuen beste gu-
ziak ere zu maite izatea.
Nik, gaur, eskatzen dizut
bada, Erramon santuaren
biotzaren izenez, zure
maitasunezko garrez ne-
re biotza goritu dezazula

eta santu aundi onen irabazpenakatik eman egidazula bederatziurren ontan eskatzen dizuten laguntza. Alaxen.

Au bukatzean esango dira iru *Aita gure, Agur Mari ta Gloria Patri.*

Zortzigarren eguna.

Egunerorako otoitza, 163'garren orrian.

Nere Jainko ta Jauna, nik nezaken apaltasun aundienaz laguntz bat zuri eskatzera natorkizu Erramon santu jayogabearen irabazpenen izenez: bere ontasunak zirala bide eskatzen zizun guzia eskuratzen zuen; santu onen

apaltasun ta ixiltasun ori
bera eskeintzen dizut nere
burua makurtuaz arrokeri
guziak alde batera utzi
ditzan. Eta gañera eska-
tzen dizut, zure zorioner-
ako ta nere onerako, eman
egidazula eskatu dizudan
laguntza. Alaxen.

Au bukatzean esango dira iru
*Aita gure, Agur Mari ta Gloria
Patri.*

Bederatzigarren eguna.

Egunerorako otoitza, 163'garren orrian.

Guzia dezazukean eta
betikoa zeran Jaun ta
Jainkoa: gaur da bedera-
tziurren onen askenengo

eguna eta oraindano bear bezela ez baneukan ortar-ako nere biotza egizu gaur bederik ongi arki dedilla nai nuken laguntza iritxi dezadan; eta, nere Jauna, au egin dezazun aurrean ipintzen dizkizut Erramon santuak eramane izan zituan naigabe, lan, zigorkada, masalleko ta beste atsekabe guztiak. Eta aundiak izan ba'ziran aundiak izan ziran ere bere irabazpenak. Eta onela beren bidez, Jauna, egizu zuregatik atsekabeak artzeko gogo sendoa izan dezan eta baitaere beder- atziurren ontan eskatuta-

ko laguntza iritxi deza-
dan. Alaxen.

Au bukatzean esango dira iru
*Aita gure, Agur Mari ta Gloria Pa-
tri.*





JESUSEN BIOTZARI

famili kristauen eskeintza.

Kristauen Buru izan naitzazuela Margarita Maria Zoriondunari azaldu zizkion Jesusen Biotz ona! Gaurtik zure biotza gure etxean Errege izan bedi. Gaurtik Zurekin bizitzea

berriz ere nai degu. Zuk gorrotatutako munduko gogokeri zoroak geren biotzetatik bota, ta beroyetan pake ona dakarten onbi-deak ezarri dezaizkigutzu.

Sinismeneko gauzak sinisten ditugula, gure buruen Errege Zu izango zera. Komunioz Zu maiz arturik, geren biotzak Zugan sutuaz, Zure Biotza gure biotzen Errege izango da. Gure atsekabeak, gure pozak, eta gure etxe-ko gora-bera guziak eskeintzen dizkitzugu. Gureetako batek zure maitasunari esker txarrez erantzunaz, atsekabetuko ba-

zindu, gogorazi deyozu pe-
katarari zinez damutuaren-
tzat Zure Biotza ona ta
errukitsua dala.

Eriotza etxe ontan sar-
tuaz, berarekin negarra
dakarreanean, Zure eraba-
kiak ontzat artzen ditugu.
Noizbait zeruan guziok
bilduta, Zu gorestuaz, gu-
ri emandako doayak aitor-
tuko ditugula gogoratu-
rik, etsiko degu-ta.

Mariaren Biotz garbia-
ren eta Aita Jose Santua-
ren bitartez gure eskeintz
au artu deiguzu ta biak
berak, bizi geran artean
eskeintz au gogorarazi be-
zaigutela. Amen.

Gora gure Aita ta Erre-ge dan Jesusen Biotza!

Itz oez, bera ta beren familia Jesusen Biotzari Jaun-artuaz eskeintzen dunak, *barkapen osoa* irabazi lezake. Urtero ere, eskeintz au berritzean, *barkapen osoa* irabazi leike. Purgatorioko animentzat eskeñi litezkenak dira.

(Pius X, 19 Maii 1908—15 Junii, 1908.)

Jaunaren Aintza geyagoratzeko.

ARKI-BIDEA

	<u>Orriac</u>
Cristau onaren goiza	9
Goizeko otoitza.	10
Maitetasunezko otoitza . . .	11
Etxetik ateratzean	12
Elizan sartzean.	12
Ur bedeinkatua artzean . . .	13
Jesus Sakramentatuaren au- rrean arkitzean.	13
Gaxo batentzat Elizakoak eramaten ikustean	14
Lanen bati asiera ematean. . .	14
Erlejuak ordua jotzean . . .	15
Pekatuan erortzeko zorian arkitzean	15
Pekatuan erortzen danean . .	16
Ondoezik arkitzen danean . .	17
Norbaitek gaitz egin digu- nean.	17
Mayaren bedeinkapena	17
Bazkal-ondoan Jaunari eman bear zaizkan eskerrak.	18
Ezkillak jotzean Otoitza. . .	19
Otoitza.	20
Ama Birjiñaren agurra. . . .	21


	<u>Orriac.</u>
Oeratzean.	22
Maria txit Santuari Otoitza	23
Jesus gure Erosleari otoitza.	24
Jesus'en Jainkozko Biotzari Otoitza	25
Erroke Santuari Otoitza .	27
Aingeru Zaitzalle Santuari Otoitza.	29
Izeneko Santuari Otoitza. .	30
Purgatorioko animen aldez Otoitza.	31
Jose Santuari Otoitza. . . .	32
Karmen'go Ama Birjiña'ri Otoitza.	34
Sinispén, Itxodopen ta Maite- tasunezko Egintza	36
Padua'ko Antonio Santuari Otoitza	37
Meza Santua.	39
Mezaren eskeintza	82
Meza Santuaren ondorengo Otoiza	83
Gurutze-bide edo Kalbarioko egipen Santua	86
Aitortu aurrean laguntza es- katuaz egin bear dan otoitza.	110





Aitortu baño len egin bear dan pekatuen gogoratzea	112
Jainkoaren aginduak	113
Ona emen nola aitortu bear dan	118
Aitortzeko ta Jaun-artzeko bear diran bezela egiteko otoitzak	120
Aitortze-ondorengo otoitza .	122
Jaun'artze - aurreko Jaungoi- ko gure Jaunari otoitza. .	125
Jesukristo gure Jaunari otoi- tza	126
Espiritu Santuari otoitza . .	127
Jaun'artze ondorengo otoi- tza	130
Jaun'artze-ondorengo eske- rrak emateko Tomas Santu erakuslearen otoitza . . .	132
Jesus'en Biotz Maiteari. . . .	135
Bezperak	139
Errosario Santua	142
Atsegiñezko Misterioak . . .	144
Naigabezko Misterioak . . .	148
Zorionezko Misterioak . . .	149
Letania	155

Erramon santu jayogabearen	
Bederatziurrena	159
Jesusen Biotzari famili kris-	
tauen eskeintza	177











BRAND

100% COTTON
MADE IN CHINA